



GIZARTE ANTROPOLOGIA GRADUA

GRADU AMAIERAKO LANA GIDA



EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco



GRADU AMAIERAKO LANA ELABORATZEKO ETA DEFENDATZEKO GIDA
ANTROPOLOGIA SOZIALA GRADUAN, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
(UPV/EHU)

SARRERA

Gradu amaierako lana (aurrerantzean GRAL) titulazioaren laugarren mailan kokatzen da, derrigorrezko irakasgai gisa, 12 kredituko karga didaktikoarekin. GRALak ikerketa akademiko pertsonala dakar, eta ikasleak bere ezagutzak, sormena eta originaltasuna aplikatzea eskatzen du; baita heldutasun-proba bat ere ibilbide profesionala hasi aurretik.

Gida hau Antropologia Sozialeko Gradurako egokitzapena da, Fakultateko Batzordeak 2013ko apirilaren 10ean onartutako araudiaren arabera, eta, aldi berean, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartutako araudiaren garapena da.

Bertan, Antropologia Sozialeko Graduak GRALen definizioari, eginkizunari, defentsari, ebaluazioari eta administrazio-tramitazioari buruzko jarraibideak daude.

GRADU AMAIERAKO LANAREN NATURA

1. GRALak ikaslearen ikerketa original bat egitea suposatzen du,, zuzendari edo zuzendari gehiagoren jarraipenarekin, non ikasleak ikasitako edukia, gaitasunak eta trebetasunak integratu eta garatzen dituen.
2. GRALak graduaren gaitasun orokorren aplikaziora bideratuta egon behar du, ikaslea gaitzeko datuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatze eta interpretatzeko, eta horrek gizarte, zientzia, teknologia edo etika gaiei buruzko hausnarketa barne hartzea dakar, baita pentsamendu kritiko, logiko eta sortzailea garatzea ere esan nahi du.
3. GRALa defendatu eta ebaluatu behar da ikasleak graduak gainerako irakasgaiak gainditu ondoren eta gradua lortzeko beharrezko kreditu guztiak dituela ziurtatu (GRALari dagokionak izan ezik). Ohiko deialdian dena gainditua izan ezean ezinezkoa da ekaineko deialdian defentsa egitea.
4. GRALa egiteko, aurkezteko eta defendatzeko, graduaren irakaskuntzan erabilitako edozein hizkuntza erabili daiteke, baina beti bermatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.

PROPOSAMENEN KUDEAKETA

1. Ikasleak GRALaren gaia pentsatuko du eta irakasle batekin harremanetan jarriko da lanaren tutoretza jasotzeko.
2. Gaia erabakita ez badago, ikasleak Antropologia Sozialeko GRAL koordinatzaileekin tutoretza eskatu ahal izango du orientazioa jasotzeko.

MATRIKULA

1. Bi egoera daude:
 - GRAL bakarrik gelditzen denean gainditzeko: auto-matrikula edo ikasturtearen hasieran egin behar da. Urriaren 30tik aurrerako eskaerak ez dira onartuko.
 - Beste irakasgai batzuk gelditzen direnean: GRALa ezin izango da auto-matrikula-egunetan matrikulatu, gainerakoak gainditu arte. Kasu honetan, matrikula/defentsa datak graduaren webgunean argitaratuko dira.
2. Matrikulak eskubidea emango du ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialetan parte hartzeko. Bi deialdietan defendatu edo gainditu ez duen ikasleak hurrengo ikasturtean berriro matrikulatu beharko du.
3. Ikasleak adieraziko du zein hizkuntzatan nahi duen GRALa prestatu eta defendatu.

GRALAREN ZUZENDARITZA

1. GRALa graduari irakaskuntza duten irakasleek edo gradua eskaintzen duen zentroko irakasleek zuzenduko dute.
2. GRALa irakasle desberdinen artean zuzendua izan daiteke.
3. UPV/EHUrekin lotutako doktoreek ere zuzendaritza egin ahal izango dute, betiere graduaren irakaskuntza duten departamentu bateko zuzendari edo koordinatzaile batekin elkarlanean.

ZUZENDARIAREN FUNTZIOAK ETA BETEBEHARRAK

1. Gaia zehaztuta dagoenean, zuzendariaren funtzioak:
 - a) Aurretiko Fasea: Lanaren informazioa ematea, eta GRALaren garapena bermatzeko kontratua sinatzea, koordinatzaileei entregatzeko.
 - b) Elaborazio Fasea: Ikaslea orientatzea eta lanaren jarraipena egitea, garapen-egutegia betetz. Gutxienez hiru tutoretza egin behar dira. Amaitzeko, ikasleak GRALa entregatuko dio zuzendariari.

c) Onarpen Fasea: Zuzendariak GRALa defendatzeko egokia edo ez egokia dela balioztatuko du eta txostena beteko du defendatzeko prozesua hasteko.

GRALaren ELABORAZIOA

1. GRALak atal enpiriko bat izan dezake edo lan bibliografiko hutsa.
2. Luzera: 10.000-15.000 hitz ingurukoa, bibliografia kontuan hartu gabe.
3. Alde formalak zaindu behar dira; edukiak logikoki antolatuta egon behar dira, gramatikalki eta ortografikoki zuzen.
4. Bibliografia antropologiako arauen arabera aipatu behar da, Chicago estiloko erreferentzia gomendatuz:

<https://www.ehu.eus/es/web/biblioteca/bibliografia-gestoreak>

5.- Modu berean, Adimen Artifizial Generatiboaren (AAG) erabilera orokortzen ari da goi-mailako hezkuntzan. Horren aurrean, EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatek AAGaren erabilera arduratsua egitea sustatu nahi dugu. Horrek esan nahi du: (1) erabili den tresna eta modua argi eta garbi adierazi behar direla, eta (2) AAG laguntza-tresna gisa baliatu behar dela, beti ere, baliabide hauek sortutako edukiak egiaztatuz eta norberaren ekarpen pertsonalarekin osatuz. Erabilera arduratsua ez betetzeak (hala nola, edukiak bere horretan kopiatu eta erabiltzea) EHUn protokoloa aplikatzea lekarke, dagokion irakasgaian izan ditzakeen ondorioekin.

EBALUAZIO-TRIBUNALA

1. GRAL bakoitza ebaluatzeko tribunal bat eratuko da.
2. Tribunalen osaketa GRALen koordinazioaren arabera egongo da. Irakasle guztiek parte har dezakete.
3. Tribunal bakoitza hiru kidez eta gutxienez ordezkoi batez osatuko da, zentroko irakasleak izan behar dira.
4. Tribunal bakoitzean presidentea, idazkaria eta aholkulari bat egongo dira.

DEFENTSA ESKAERA

Informazioa: <https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/gralen-matrikula>

GRALaren DEFENTSA

1. Tribunalak izendatutakoan, ikaslea deituko da defentsarako.

2. Defentsa presentziala izango da.
3. Defentsa publikoa izango da.
4. Defentsa graduaren irakaskuntzan erabilitako edozein hizkuntzatan egin daiteke.
5. Ikasleak beharrezko ikus-entzuneko baliabideak izango ditu.
6. Defentsa gehienez 20 minutukoa izango da, helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azalduz.
7. Ondoren, tribunalak 15 minutuko eztabaida egingo du galderak eginez.
8. Azkenik, tribunalak GRALa ebaluatuko du, deliberazio sekretu bidez. Notak GAUR-en argitaratuko dira.

EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

1. Baloratuko dira:
 - a) GRALaren aurkezpen idatzia
 - b) Defentsa ahozkoa
2. Gainditu ezean, tribunalak hobekuntza gomendatuko du.
3. Kalifikazioa 0-10 eskalan izango da, hamartarrik adierazita, eta kalifikazio kualitatiboa:
 - Ez aurkeztua
 - 0-4,9: ez gainditua
 - 5,0-6,9: nahikoa
 - 7,0-8,9: oso ongi
 - 9,0-10: bikaina

Ohorezko matrikula 9,5 edo gehiagoko kalifikazioa jasotzen dutenek eskuratu dezakete, ikasleen %5 baino gehiago ez.
4. Notak berrikusi ahal izango dira unibertsitatearen araudiaren arabera; lehen instantzian tribunal bera, eta bigarren instantzian, kexa-batzordea. Erabakia erreklamatu daiteke errektorearen aurrean.
5. GRALaren notak ikasleen espedientean egon beharko dira urriaren 31 baino lehen.

TRIBUNALEN DEIALDI-DATAK

1. Lehenengo deialdi ohikoa (1. lauhilekoa): Otsaila
2. Bigarren deialdi ohikoa (2. lauhilekoa): Ekaina
3. Deialdi berezia (gainditu ez dutenentzat zein aurkeztu ez): Iraila

Deialdi-datak: <https://www.ehu.eus/es/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/gral-egutegia>

GRALAREN ARTXIBOA ETA KONSULTAK

GRALa Jabetza Intelektualaren Legearen babesean dago. Ondorioz, eskubideak ikaslearena dira, eta ezingo ditu eskubide horiek transferitu defendatu eta nota lortu arte.

Modu berean, Adimen Artifizial Generatiboaren (AAG) erabilera orokortzen ari da goi-mailako hezkuntzan. Horren aurrean, EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatetik AAGaren erabilera arduratsua egitea sustatu nahi dugu. Horrek esan nahi du: (1) erabili den tresna eta modua argi eta garbi adierazi behar direla, eta (2) AAG laguntza-tresna gisa baliatu behar dela, beti ere, baliabide hauek sortutako edukiak egiaztatuz eta norberaren ekarpen pertsonalarekin osatuz. Erabilera arduratsua ez betetzeak (hala nola, edukiak bere horretan kopiatu eta erabiltzea) EHUren protokoloa aplikatzea lekarke, dagokion irakasgaiari izan ditzakeen ondorioekin.

Informazio osoa: <https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/gradu-amaierako-lana>